


GORBEIA



DIMA


301 ZUMELTZATIK LAPURREKETAKO PAGADIRA DE ZUMELTZA AL HAYEDO DE LAPURREKETA

Paseo erraz honek pagadi lepatu baten adibide bikaina ezagutzeko aukera luzatzen digu, Zumeltzako atsedenekuaren ondo-ondoan.

Este sencillo paseo nos ofrece la posibilidad de conocer un magnífico ejemplo de hayedo trasmocho a un paso del área recreativa de Zumeltza.



IRTEERA	Zumeltza	SALIDA
HELMUGA	Pagadia Hayedo	LLEGADA
LUZERA	600 m	DISTANCIA
GEHI.MALDA (+)	10 m	DESNIVEL (+) ACUMULADO
DENBORA	15'	TIEMPO ESTIMADO
ZAILTASUNA	erraza fácil	DIFICULTAD



Ibilbidea Itinerario

Ibilbidea Zumeltzako atsedenekuan dagoen aparkalekutik abiatzen da, hegoalderantz. Seinaleek Lawsonen altzifre-sail trinkoan barneratzen den bidezidorretik gidatuko gaituzte.

Erreka txiki bat zeharkatu ondoren, Lapurreketa pagadira zuzenean doan pistatik jarraituko dugu. Eskumaldean aurkituko dugu basoa. Honen sarreran dagoen interpretaziozko atrilak zuhaitz zahar horiei argimutil forma eman zien lepatze-prozesua azaltzen digu.

Itzulerako bidea bide bera urratuz egiten da.

La ruta parte del aparcamiento situado en el Área Recreativa de Zumeltza en dirección sur. La señalización nos guiará por un sendero que se adentra en una densa plantación de cipreses de Lawson.

Tras cruzar un pequeño arroyo, continuamos por la pista que conduce al hayedo de Lapurreketa. Encontraremos éste a nuestra derecha. Un atril interpretativo a la entrada del bosque nos explica el proceso de desmoche que otorgó a estos viejos árboles su característica forma de candelabro.

El camino de vuelta se realiza desandando el mismo camino.



Dantzaleku

Pago motzak Hayas trasmochas

Pagoak 30-40 metroko altuera izan dezake. Pago motzei adar nagusia mozten zitzaiezen, altueran haztea eragotziz. Horrela, adarrak argimutil moduan garatzen ziren, eta, horrela, zuraren erabilgarritasuna mugarik gabe bermatzen zen eta inausketa erraztu.

El haya puede alcanzar los 30-40 metros de altura. A las hayas que denominamos "trasmochas" se les cortaba su rama principal impidiendo ese crecimiento en altura. De esta manera, las ramas se desarrollaban en forma de candelabro asegurando así la disponibilidad de madera de forma indefinida y facilitando la poda.

Gaur egun, zuhaitz zahar horiek zeregin garrantzitsua betetzen dute basoaren zikloan, enborrean sortzen diren pitzadurak eta hildako egurra ezinbestekoak baitira izaki bizidun askorentzat.


Hoy en día estos viejos árboles cumplen un papel importante en el ciclo del bosque ya que las grietas que se forman en su tronco y la madera muerta son imprescindibles para un sin fin de seres vivos.



Lapurreketa

30 ZUMELTZATIK LAPURREKETAKO PAGADIRA DE ZUMELTZA AL HAYEDO DE LAPURREKETA ZUMELTZATIK SAIBIRA IGOERA ASCENSIÓN AL SAIBI DESDE ZUMELTZA

www.gorbeiauskadi.com



302 ZUMELTZATIK SAIBIRA IGOERA ASCENSIÓN AL SAIBI DESDE ZUMELTZA

Ibilbide honek Dantzaleku lepora eta Saibi gailurrera eramango gaitu. Bidetik, pagadi lepatu ederra ikusteko aukera ere izango dugu.

Este recorrido nos conducirá al collado de Dantzaleku y a la cima de Saibi. Por el camino tendremos la oportunidad de ver un precioso hayedo trasmocho.

Ibilbidea Zumeltzako Haitzuloko atsedenekutik abiatzen da, antzinako aerodromoaren ondok, eta bihurgune itxi batzuk dituen pistatik igotzen da Arkaola baserriraino.

Aldapa gogor bati aurre eginez Dantzalekuko lepora iritsiko gara. Hemen egin ohi zuten Arratierrek azken dantzaldia San Antonio egunean (ekainaren 13an) Urkiolan ospatzen zen erromeriatik bueltan.

Pagadi motz eder hau atzean utzi eta pinudian gora egingo dugu Saibiko larreetara iritsi arte, gailurrera heltzeko zeharkatuko ditugunak. Bertan, mahai panoramiko bat eta gurutze handia aurkituko ditugu. Azken honek gerra zibilean kokapen hau defendatuz bizia galdu zuten gudariak eta milizianoak omentzen ditu.

La ruta parte del área recreativa de Zumeltza Gruta, junto al antiguo aeródromo, y asciende por una pista que describe varias curvas cerradas hasta llegar al caserío Arkaola.

Por una fuerte pendiente ascendemos hasta llegar al collado de Dantzaleku (zona donde se baila). Parece ser que aquí se celebraba el último baile en el camino de vuelta de la romería que desde Arratia se


acercaba a Urkiola cada 13 de junio (día de San Antonio).

Dejando atrás este precioso hayedo trasmocho, ascenderemos entre pinos hasta llegar a las campos del Saibi, que remontaremos para ascender a su cima. En ella podremos encontrar una mesa panorámica y la cruz que homenajea a los gudarís y milicianos que perdieron su vida defendiendo esta posición durante la Guerra Civil.



Saibi

IRTEERA	Zumeltza	SALIDA
HELMUGA	Saibi	LLEGADA
LUZERA	3,5 km	DISTANCIA
GEHI.MALDA (+)	350 m	DESNIVEL (+) ACUMULADO
DENBORA	1h 15'	TIEMPO ESTIMADO
ZAILTASUNA	erraza fácil	DIFICULTAD



**GOGORATU!
¡RECUERDA!**

Ingurunea, flora eta fauna errespetatu. Zarata egitea ekidin, ez egin surik eta zure txakurra lotuta eraman.

Ingurunea garbi mantendu. Ez utzi zaborra bertan; utzi edukiontzietan edo eraman ezazu.

Seinaleztapena errespetatu. Prestatutako lekuetan aparkatu, bideak erabili eta atakak itxi.

Arreta artzai txakurrekin, utzi bakean, lanean daude. Hurbiltzen badira, lasai egon, ez egin korrikarik eta eraso bezala hartu dezaketen mehatxuzko keinuak ekidin.

Informazioa eskatzeko edo edozein arau-hauste salatzen zonaldeko informazio bulegora hurbildu zaitezke.

Respete el entorno, la flora y la fauna. Evita hacer ruido, no hagas fuego y lleva atado a tu perro.

Mantén limpio el entorno. No abandones basura; depositala en los contenedores o llévatela.

Respete la señalización. Aparca en lugares habilitados, utiliza los caminos y cierra las cancelas.

Atención a los perros pastores, no los molestes, están trabajando. Si se acercan, mantén la calma, no corras y evita gestos amenazantes que puedan interpretarse como un ataque.

Para solicitar información o denunciar una infracción puedes acudir a las oficinas de turismo de la zona.

	HASIERA INICIO		Atsedengunea Área recreativa
	Ibilbideak Itinerarios		Aparkalekua Aparcamiento
	Mendiko ibilbide luzea Itinerario de Gran Recorrido		Taberna, jatetxea Bar, restaurante
	Mendiko ibilbide laburra Itinerario de Pequeño Recorrido		Bus geltokia Parada de autobús
	Pagadi lepatua Hayedo trasmocho		Urkiolako santutegia Santuario de Urkiola
	Iturria Fuente		Natura 2000 sarea Red Natura 2000
	Gailurra Cima		


track-ak deskargatu

ZUMELTZA SAIBI

descárgate los tracks

Ibilbide hauek seinalizatuta dauden arren, komenigarria da track-a zure GPS edo mugikorrean deskargatzea.

Aunque estos recorridos están señalizados, es recomendable descargar el track en tu GPS o smartphone.



30.1 ZUMELTZATIK LAPURREKETAKO PAGADIRA DE ZUMELTZA AL HAYEDO DE LAPURREKETA

30.2 ZUMELTZATIK SAIBIRA IGOERA ASCENSIÓN AL SAIBI DESDE ZUMELTZA

